

PAPELERA NAVARRAN LAN EGITEN ZUTEN LAU ANDERE ETA GIZONEZKO BAT DIRA HILAK, ETA ELON IZAN ZUTEN EZBEHARRA

Enpresa bereko bost langile hil dira auto istripuz, Zangozatik Iruñera zihoazela

■ Istripua 15:00ak inguruan gertatu zen, Miguel Irisarrik gidatzen zuen kotxeak aurrez aurre beste ibilgailu bat jo zuenean

■ Beste kotxea gidatzen zuen Jose Armazegi oso larri zegoen atzo Nafarroako Ospitaleko Zainketa Bereziatarako Gelan

■ Foruzaingoaren ikerketaren lehen hipotesien arabera, Zangozara zihoan autoa kontrako bidean sartzean gertatu zen ezbeharra

Erredakzioa / Iruñea

IRUÑEKO bost lagun hil ziren atzo Elon bi autok aurrez aurre jo ondoren.

Bost hildakoak NA-2482-AW matrikuladun Peugeot 406 batean zihoazen, Zangozatik Iruñerako bidean, NA-2554-AU matrikuladun modelo bereko auto batek aurrez aurre jo zituen. Azken auto honetan Jose Armazegi iruinsemea bakarrik zihoan, eta istripuaren ondorioz larri zaurituta eraman zuten Nafarroako Ospitalera.

Hildakoek Papelera Navarra enpresak Zangozan duen lantegian hogeitau urte baino gehiago zeramatzen lanean, eta eguerdian, laneguna amaitu ostean, egunero bezala elkarrekin Iruñera abiatu ziren. Etxerako bidean, Elo herriaren inguruan zihoazenean, beste auto batek jo zituen.

54 urteko Miguel Irisarri (gidaria), 46 urtetako Mercedes Ruiz, 38 urtetako Maria Victoria Diez, 47 urtetako Mari Jose Ardanaz eta Amparo Sola irudarrak autoaren burdin artean harrapatuta geratu ziren, eta berehala zendu ziren; aurretik jo zituen autoaren gidaria, berriz, larri zauriturik geratu zen.

Nafarroako foruzainek, epailearen baimena jaso bezain pronto, hildakoen gorpuak jasotzeari ekin zioten, eta bost zendutakoen gorpuak Nafarroako Ospitaleko Institutu anatomiko forentsera eraman zituzten. Gizon zauritua (traumatismo torazikoa, eta bularrezurra eta pelbisa hautsita) ospitale honetako zainketa berezien gelara sartu zuten.

Istripua N-240 errepidearen 19. kilometroan izan zen, errepide horrek Elo herria zeharkatzen duen tokian, eta hipotesi ugari aztertzen ari direla gogoratu ostean, Foruzaingoak «kolpearen arabera zaurituak gidatutako autoak



Istripua izan zuen autoetako bat, garabiak jaso zuen unean.

bestea jo zuela esan zitekeela aurreratu zuen.

Gurutze Gorria, DYA eta suhiltzaileak berehala iritsi ziren istripuaren tokira, eta ia ordubetez errepidea moztuta egon zen; halere 17:30erako trafikoa erabat normalizaturik zegoen.

Enpresa isilik eta ELA atsekabeturik

Istripuaren berri izan ostean Papelera Navarra enpresako arduradunak erabat atsekabeturik azaldu ziren, eta ez zuten inolako adierazpenik egin nahi izan. ELA sindikatuak enpresa honetan duen sailak, bestalde, doluminak azaldu zizkien hildakoen senideei, atzo kaleratutako jakinarazpen batean.

Papelera Navarra Nafarroako enpresarik garrantzitsuenetakoa da. Langile kopuruari dagokionez Foru Erkidegoko 32. enpresa da (360

2002rako autobia izango den errepidea

■ A.B. / Iruñea Tafalla eta Iruñea bitarteko N-121 errepidearen zerbaki beltzak izan gabe, Iruñea eta Zangoza bitarteko N-240 bidea aski ezaguna da gidarien artean batez ere Pirinioetara joateko ohiko ibilbidea delako. Bisibilitate handikoa, ibilbide zuzenak ez du aparteko arazorik ematen, eta leku beltz bakar bat ere ez du bere ibilbidean. Hala eta guztiz

ere, Nafarroako Gobernuak badu errepideendako egitasmo nagusiaren barruan bertan autobidea egiteko asmoa, bera baita Nafarroan dauden hiru ardatz estrategikotatik bat. Hain zuzen ere, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio departamentuaren datuen arabera, 2002. urterako hasi beharko litzateke bertan errepide bikoizteko lanak.

Horrek bat egingo luke Aragoiko eta Kataluniako gobernuek azalduetako proiektu nagusiarekin: hau da, Kantauri Itsasoa eta Mediterraneo Itsasoa autobiaz lotzea. Iruñetik Huescara izango litzateke lehen zatia, hain zuzen ere.

Gobernuaren asmoen arabera, lehen zatia Noain eta Idotzinen arteko zatia litzateke, eta egun departamentuak kontratatuta dauka

dagoeneko zati hau autobia bihurtzeko alternatiben ikerketa.

Bigarren pausoa litzateke Esako urtegiarekin lotuta dagoena. Ebroko Ur Konfederazioak datorren urtean hasi nahi dituela bertan lanak, eta horrek ekarriko luke, nahitaez, errepide berria. Nafarroako Gobernuak nahi du Liedena eta Berdunen arteko zatia —27 kilometro— dena autobia izatea.

langile bi lantokitan banaturik) eta fakturazioari begiratuz gero Nafarroako 21. enpresa (11.208 milioi pezetatoko fakturazioa izan).

Zangozako lantokian 260 langile dituzte eta Iruñea ondoko Cordovilla herrikoan beste 100.

Papelera Navarra kartoia-

ren manipulazioan aritzen da gehienbat, Cordovillatik bidalitako kartoi soberakinak Zangozan pasta bihurtuta.

Auto istripua



CRISTINA BERRIAIN

J. APEZTEGIA